

# JANARI OSASUNTSUEN

# JANARI AZKARRA

---

### 3. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresa bakoitzak bere hornitzaileak eta bere sozioak ditu bere enpresa aurrera eramateko eta uneoro hainbat produktu edukitzeko. Gure lekua janari osasuntsuaren lokala izango denez, gure lekutik gertu dauden tokietara joango gara, abantaila bat dela uste baitugu. Kalitatezko hornitzaileak ere baditugu, elikagai osasuntsu eta ekologikoak izanik kasu batzuetan kalitatezko janaria izan behar baitu. Era guztietako fruituen hornitzaileak izango ditugu, eta eskusiboagoak diren batzuk; hala nola, ahukatea, kaki eta granada, eta mota guztietako barazkiak, haragi zein arrain ekologikoa etabar.

Gure janari azkar osasungarriko jatetxean, eskaintzen ditugun produktuak gehienbat fruta, barazki eta haragiz (oilako, txahal urrixa, arraina...)osaturako platerak dira. Edariak ere eskaintzen ditugu, hala nola ura, tea eta kafea. Horretarako, hainbat hornitzaile kontratatatu ditugu, eta horiek gure jatetxea aurrera ateratzeko behar ditugun elikagaiak ematen dizkigute.

Hasteko, frutak eta barazkiak ditugu, elikagai horiek bi taldetan banatu ditugu, batetik gehien kontsumituko diren fruta eta barazkiak, gure plater askotarako erabiltzen baitira, esaterako; tomatea, laranja, letxuga, tipula, patata, ahukatea, **Mercabilbao-n** erosiko ditugu, Bilboko handizkako merkatu zentralean, non, adibidez, supermerkatuek saltzen dituzten produktuen zati bat erosten duten. Fruta eta barazkiez gain, arroza bezalako elikagaiak erosiko ditugu Mercabilbao-n, produktu hau gure plater askotarako erabiliko baitugu. Bestalde, kopuru txikiagoan erabiliko ditugun frutak eta barazkiak ditugu, hala nola piperra, pepinoa eta erremolatxa, Barakaldoko fruta-denda batean erosiko ditugu. Fruta-denda honen izena **Fruteria Ceni** da, eta A. Miranda etorbidean dago, 13 zenbakian, Barakaldon, Euskal Herrian.

Haragiarekin jarraitzen, gure jatetxean oilaskoa eta txahala duten platerak eskaintzen ditugu. Beraz, elikagai hori lortzeko, gure hornitzailea **Ekoharagia (<http://www.ekoharagia.com/>)** izango da. Haragi hau erabiliz, haragi ekologikoa eta modu estentsiboan dauden eta ez modu intentsiboan dauden animaliak kontsumitzea sustatzen dugu, gaur egun kontsumitzeko erabiltzen diren animalia gehienak egoera larrian baitaude. Eskaintzen duten haragi motak % 100 ekologikoak dira. Arrainaren aldetik,

hornitzaileak bertakoak izango dira, hau da, Barakaldon dagoen arrandegi bat. Honen izena **Arrainak eta Mariscos Hnos Gonzalez** da eta Eguzkiagirre kaleko leian dago, 48902 Barakaldo, Bizkaia.

Bukatzeko, edariak ditugu, eta lehen esan dugun bezala, zerbitzatuko ditugun edariak ura, tea eta kafea izango dira. Edarien hornitzailea, berdina izango da, **Gonvador**, Zamudion dagoena, Bizkaian. Gure jatetxean eskaintzen dugun ur-marka aquabona izango da, Fontoie iturburutik datorrena, mineralizazioa ahula du eta litro bakoitzaren prezioa 28 €-koa da. Kafearekin jarraituko dugu, eta eskaintzen dugun marka **Nestle** (Bonka) da ( <https://www.bonka.es/cafe> ). Kafe mota desberdinak eskaintzen dizkigute eta modu ezberdinetan hala nola ehoa, aleetan... . Hauen kontsumizioa garatu nahi dugu organikoak baitira honek esan nahi du pestizida, produktu kimiko edo ongarririk ez dituztela eta ingurumena zaintzen laguntzen du. Antioxidatzaileak eta bitaminak ematen ditu ere bai. Bere kontsumoak kafe ekoizle txikiak onartzen ditu eta ez nazionalen ondoren enpresak.

Bukatzeko, teak ditugu, eta **Umaicha** marka eskaintzen dugu. Azukrerik edo edulkoratzailerik gabeko te infusioen lehen gama eta BIO da. Umaicha azukrerik edo edulkoratzailerik gabeko te infusioak eta naturalki kaloriarik gabe eskaintzen dituen marka bakarra da. Umaicha-ren BIO sortak 2 te berde eta Rooibo berde barietate ditu azukrerik gabe eta gehigarririk gabe, eta merkatuan kaloria gutxien duen Yuzu gozo samarra duen te berde barietate bat.

Aurretik azaldu dugunez, prozesuaren zati honetan garrantzitsua da jakitea enpresa baterako hornitzaile eta bazkide mota guztiak oso garrantzitsuak direla. Hau da, haiek dira enpresaren zati handi bat osatzen dutenak, haiek gabe enpresa batek ezingo luke aurrera egin, beraiek baitira enpresa edo tokiko bati euren negozioetarako produktu mota asko aurkitzeko aukera ematen diotenak. . Bertako batek edo enpresa batek produktuak erosten dituen hornitzaile finkorik izan gabe ezingo luke inolako diru-sarrerarik izan. Pentsatzen dugu negozioziazio harreman ona ezarri behar duzu hornitzaileekin negozioziazioaren bidez, merkatuko prezio onenetaz baliatzeko, eta enpresa lehiakorra izan lehen minututik.